# KOLABORAZIOAK

## Bitoriano Gandiaga «Memorian» (hil zeneko 10. urteurrenean)

**Paulo Agirrebaltzategi**
idazlea

Izen horrexekin –"Memorian"– eskaini zion Gontzal Mendibilek bere oroitzapen kanta hunkigarria Bitoriano Gandiaga hil berriari; eta Bratislavako Orkestra Sinfoniko eta Donostiako Orfeoiarekin batera grabatu zuen diskoaren titulu bihurtu zuen gainera.

Duela hamar urte hil zen Bitoriano Gandiaga, «poeta onetan eta oso onetan apartekoa»: 2001eko otsailaren 21ean. Beste hainbatek eduki eta erabili dute Gandiaga beren oroitzapenetan hamar urteotan, kantatu beren kantetan eta landu beren idazlanetan. Guztien berri ematea ezinezkoa da hemen, baina horietakoren batzuk ekarriko ditugu testigutzat.

Askori geratu zaigu bereziki memorian 2001eko abuztuaren 17 hartan Urbian eta Arantzazun entzundako jai-kantaldi haiek, Donostiako Musika Hamabostaldiak Gandiagaren omenez antolatuak. Bertan hartu zuten parte Gandiagaren errezitatzaile eta kantarietako ezagun askok: Mendibil, Oskarbi, Valverde, Lete, Nogales, Knörr, Artze, Zabala, Urko eta bestek. Durangon eta Gernikan errepikatu zuten emanaldia eta "Elorri loratua" izeneko CD bikoitzean argitaratu Keinu etxeak (2003).

150 bat titulu erregistratuak ditugu, Gandiagari buruz hamar urteotan argitaratuak: artikulu eta liburu... albiste, iritzi, saiakera eta azterketa. 2001. urtean bertan eskaini zion liburu bio-bibliografikoa poeta mendatar-arratzuarrari Mendatako Udalak: Bitoriano Gandiaga eta Mendata. Gandiagaren poesiaren azterketa-liburuen artean bereziki aipatzekoak dira: Jose Mari Kortazarren "Erlijio gaia Gandiagaren poesian" (2005) eta Sebastian Gartzia Trujilloren "Herri maitea, Herri dorpea" (2007). Azken honek, Gandiagaren "Hiru gizon bakarka" liburuaren ikerketa zabal-sakona izanik, Europako pentsamendu eta kultur korronte modernoaren testuinguruan ipintzen digu Euskal Herriari buruzko haren obra poetikoa, aipu eta erudizio oparoz, gure poeta Arantzazukoa mundu zabaleko solas plazara atereaz. Bestelako hizkera eta estiloz Gandiagaren erreferentzia «unibertsal» bera erakutsi digu Joxe Azurmendiren "Azken egunak Gandiagarekin" liburu berriagoak ere (2009), Mendebaldeko labirinto filosofikoaren probaldia eraginez gizon-fraide Bitoriano eta poeta-artista Gandiaga zenari; aitzakia baino askoz gehiago, zio eta akuilu gertatu zaio Joxeri Gandiagak bizi eta poetizaturiko misterioa –«mitoa»–, bere aldetik filosofiaren ibilbide bihurrien irakurketa kritiko bere-berea egiteko.

> Adiskideen oroitzapenean eta ikerlarien azterketan ez ezik, bere literatur idatzietan ere bizirik jarraitu du Gandiagak

Adiskideen oroitzapenean eta ikerlarien azterketan ez ezik, bizirik jarraitu du Gandiagak bere literatur idatzietan. Nabarmentzekoa da autorea hildako urte berean (2001) gertaturiko argitalpen antologikoen eztanda modukoa, aldizkari nahiz liburuetan: "Idatz & Mintz" (zenbaki monografikoa), "Bizitza itxaropen delako" (Amaia Iturbe, EHU), "Bitoriano Gandiaga" Kaiera (Koldo Izagirre, Susa), "50 olerki Gandiagatar" (Labayru); geroxeagokoak dira "Zurgai" aldizkariaren "Con Vitoriano Gandiaga" (monografikoa, 2003) eta "Hitz lauz idazten" (prosazko idatzien antologia, Iñaki Sarriugarte, 2006).

Eta berpiztuta agertu zaigu Gandiaga behin eta berriro bere obra poetiko berrietan (bizitzan argitaragabekoetan). Arantzazuko Ostertza sailak bi libururen atal nabarmenak eskaini dizkio bertako poeta gogoangarriari: "Justizia eta Bakea", "Poemak eta otoitzak" (horko 15 olerki Gandiagarenak dira; 2003) eta "Jaunarekin supazterrean". "Gandiaga oroituz" (Patxi Ezkiagaren poema-liburua, Gandiagaren olerkitxo epigramatikoen laguntzarekin orrialdez orrialde, 2003). Esangura guztiz berezikoa izan zen "Adio" poema-sortaren, autoreak berak prestatuta utziaren, argitalpen apaina (Joxe Azurmendiren sarrera mamitsuarekin, 2004); arnasaldi handikoa, ostera, lau liburuki «monografikotan» emandako "Poema argitaragabeak" bilduma handia (sarrera bana eta guzti, Elkar-Arantzazu-Labayru, 2005): "Biziminez" (hitzaurregilea: S. Trujillo), "Euskalminez" (hitzgile.: P. Agirrebaltzategi), "Jainkominez" (hitzgile.: P. Ezkiaga), "Izadiminez" (hitzgile.: I. Sarriugarte). Azkenik, berri-berria "Gabon dut anuntzio". "Soinuz eta kantuz" obra (Arantzazu, 2010), non duela 25 urte argitaraturiko "Gabon dut anuntzio" liburua (musika-partitura eta guzti) osatuta baitator Gabonen inguruko Gandiagaren beraren beste 60 bat bertso-sorta eta poesia argitaragabeekin; obra eta argitalpen berri honen ekarpen nagusia, hala ere, X. Egañaren irudiez gain, Pello Zabalaren eta J. L. Atxegaren doinuen 3 CDak dira, liburuko 50 bat pieza «soinuz eta kantuz» grabatuta eskaintzen dituztenak, Gandiagaren beraren zortzi errezitazioekin batera.

Bitoriano Gandiagaren oroitzapena bizirik zaindu duten ekimen nagusi batzuk, ez denak, ekarri ditut hona. Amaitu aurretik, ordea, ezin utzi ahantzita haren «memoria» luzatzeko eta lantzeko baliabide oso garrantzizkotzat jotzen dudan *http://www.gandiaga.com/* webgunea, non gure autorearen obra literario-poetiko osoaren edizio kritikoa aurki baitaiteke, idazki honen sinatzaileak landua eta Koldo Mitxelena Kulturunean ostatatua. Bitoriano Gandiaga (autorea eta obra) ikertu nahiko dutenek hor corpus eta informazio baliozkoak eta ezinbestekoak aurkituko dituztela uste dut. Lagungarriagoak izango lirateke, jakina, edizio kritiko osoa paperean ere argitaratuta balego. Itxaropena ez da galtzekoa.

## En Nafarroa el sur no existe

**Javier Roca, Beatriz Sola, Paz Hernández (*)**
Plataforma del Servicio de Urgencias Rural (S.U.R.)

Mario Benedetti decía en su poema que "El Sur también existe", pero el Gobierno de Nafarroa parece que no se ha enterado. Hace ya tres años que firmó con los sindicatos un acuerdo por el que se creaba el SUR (Servicio de Urgencias Rural) y hoy todavía no se ha creado el mencionado servicio, responsable de la atención sanitaria urgente en el medio rural.

Parece ser que lo rural (aunque sea sanitario) no debe depender de Salud, sino de Medio Ambiente, ya que llevamos todo este tiempo reclamando al Departamento de Salud que cumpla lo firmado. También los sindicatos se lo solicitan, pero por lo que parece, a los responsables no les viene bien abordar este tema.

Aunque, como ya saben, en este servicio fantasma trabajamos más de 250 personas entre médicos y enfermeras.

A fin de cuentas, nos manda todo el mundo, pero nadie es nuestro responsable. Estamos al albur de las decisiones de la jefatura de turno, no tenemos un calendario unificado, en cada sitio nos aplican el que les conviene.

> Me imagino que nadie entendería que los bomberos tuviesen que poner su propio camión; pero, claro, nosotros sí, es lo que tiene no pertenecer a nadie y que te manden todos

Para la realización de nuestro trabajo (atención de urgencias, accidentes, etc.) se nos dota de una bata y un chaleco reflectante (de esos que por ley hay que llevar en el coche). Nos queremos imaginar que la bata y el chaleco los han hecho en la NASA, y lo mismo te protegen de cortes que de derrames de fluidos, del frío del invierno y la lluvia, etc. El resto de los servicios de urgencias, los que realizan su trabajo en el medio urbano, o sea las ciudades, sí tienen ropa de alta visibilidad y de protección, botas, chalecos, pantalones con reflectantes, prendas de abrigo...

A pesar de que el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales ya en 2007 emitió un informe en el que pone de manifiesto la necesidad de estas medidas de protección, parece que al Gobierno sigue sin venirle bien dotarnos de ellas.

Para desplazarnos a los lugares de los accidentes, incidentes, avisos, etc. debemos llevar nuestro propio vehículo o, lo que es lo mismo, prestárselo a la Administración. Me imagino que nadie entendería que los bomberos tuviesen que poner el camión propio; pero, claro, nosotros sí, es lo que tiene no pertenecer a nadie y que te manden todos, al final eres un huérfano dentro de la Administración.

Pues sí, señores del Gobierno, Benedetti tenía razón, el SUR también existe: realiza un trabajo encomiable, cuando menos igual al del resto del personal de Urgencias del Gobierno de Navarra. Como tal personal, creemos que debemos tener un servicio propio, con nuestros jefes propios, un servicio dotado de las medidas de seguridad necesarias para que no peligre nuestra integridad, un servicio dotado de los medios materiales necesarios para poder desarrollar nuestro trabajo, que no es otra cosa que servir al ciudadano en los momentos en los que éste es más vulnerable, en la enfermedad, en los accidentes. Queremos tener nuestros propios calendarios de trabajo, porque somos un servicio propio.

Sí, señores del Gobierno, las promesas están para cumplirlas, y cuando esas promesas además se plasman en un papel y se firman, con mayor motivo.

Pues sí, volveremos mañana, y al otro, y al otro, y así sucesivamente hasta que logremos dejar de ser funcionarios de segunda, hasta que se nos dote de lo que nos corresponde para poder realizar nuestro trabajo, hasta que ustedes creen el servicio que prometieron y firmaron, hasta que para poder dar el mejor servicio al ciudadano no baste nuestra profesionalidad y la improvisación.

Volveremos, estén seguros. Parece que fue ayer cuando se iba a crear este «servicio», pero han pasado tres años, casi una legislatura.

*(*) Firman también el artículo* ***Miren Bakarne Razquin, Pilar Maravi*** *y* ***Amaia Zabalo***